Bizarrain Kultur Elkarte

# ALTZAKO I. BERTSOPAPER LEHIAKETA

Bizarrain Kultura Elkarteak Altzako I. Bertsopaper Lehiaketa antolatu du aurten. Berau, 18 urte edo gehiagoko helduei zuzendua izan da eta egia esan, sorpresa atsegin bezain aberatsa suertatu zaigu antolatzaileoi, kezkaz beterik luzatu baikenuen lehiaketaren ibilbidea.

Hamaika egile aurkeztu dira bertara. Zazpi inguruko herrietatik eta lau bertakoak, hain zuzen.

Ez dakigu sari metalikoak lehiaketaren mailan egon izan den, dirua bera ere urri samar baitabil azken bolada honetan “krisiaren” hatzaparrak sumatzen baitira “kimu berde berriak” baino gehiago.

Bertso sortak, beti ere oinarrizko arauak jarraituz, gai eta doinu librean idatziak izan dira, aurrerantzean ikasi eta kanta ahal izan ditzagun. Epaimahaiarengandik lanak ondo aztertuak izan ondoren, joan bitez eskerrik zintzoenak epaimahai gisa aritu diren Unai Elizasu eta Joan Mari Irigoieni, sailkapena ondokoa izan da:

1. Saria “Marko inkonparable horri” izenburua duen bertso sorta izan da, Iñigo Legorburu Arregi errenteriarrak osatua. Bertakoen artean, hau da, aurkeztutako altzarren artean, bi saridun eman beharrean aurkitu izan gara beraien gai ezberdinen bezain kalitate onarengatik. Bat, Xabier Mujika Casares “Welcome to…” lanarengatik, eta “Asko maite zaitugu Koldo” Xanti Zapirain Elizaldek aurkeztutako lanarengatik.

Zorionak irabazleei eta animo gainontzeko parte hartzaileei, hurrengo batean indar eta adimen berriturik etorriko ziazkigulakoan.

Milesker Galantene baserriko Arantxa eta Joseba Alkiza anai-arrebei beraien produktu eta otarrak hain ederki prestatzeagatik.

Besterik gabe, eta ondoren, zuen gozamenerako eta baloratzeko aukera izan dezazuen hementxe dihoazkizue hiru irabazleen bertso sortak eta animatuz gero ozenki kanta ditzazuen.

LEHENENGO SARIA:
**“MARKO INKONPARABLE HORRI”**
IÑIGO LEGORBURU ARREGI
Doinua: Habanera

1
Probintziko hiriburu
zen Tolosa txiki hari
gogotsu erreleboa
hartu zenion aspaldi
gaurko zure jarduera
aztertzen badugu adi
izendatu zaitzakegu
gipuzkoarron gidari.
Nire usteak azalduz
errespetuz eta garbi
sorta hau osatu nahi dut
ahapaldiz ahapaldi
horregatik orain hasi
behar natzaio kantari
maite eta gorrotatu
daiteken Donostiari

2
Asetzen gaitza delako
politikarien grina
Donostia bihurtu da
atzerritarren panpina
dolar eta euroaren
xarma ekidin ezina
gureganatu ostean;
gora etekin gordina!
Turistenganako tratu
goxo eta atsegina
euskaldunekin mespretxu
bilakatzen da, jakina
zerbitzuz bete digute
gure hiri pinpirina
etxekoen ahaleginez;
kanpotarrentzat egina.

3
Donostiak bere baitan
baditu hainbat ondare:
Txirritaren baserria
Altzan bertan, parez pare
Bilintxen Antzoki Zaharra
antzerkiaren mirabe
Bretxako baserritarrak
produktu onenen jabe…
Parisen antzeko egin
dute xuabe xuabe
ustezko hiri urbano,
postmoderno baten alde
progresoa txarra denik
ez dut esango halare
aurrera egiten bada
iragana ahaztu gabe.

4
Erdiguneko etxeen
prezio latza tarteko
Donostia berez ez da
hain merkea bizitzeko
inor ez dagoenez prest
salneurri hauek jaisteko
hiri hau bihur liteke
aiton amonentzat ghetto
Etxebideren zerrendak
betetzen direnez lepo
jende ugari bizi da
zozketa baten menpeko
nola egun sosak diren
ilusioen ordezko
gazteak joaten dira
adinduak etortzeko.

5

Easo Ederra hain da
eskaparate haundia:
Begira Ulia gaina
edo Kontxako badia
zuhaitz mardulen itzala,
eguzkiaren argia
hautaketa egiteko
ze aukera ugaria…
Baliatuz aste santu,
jai-egun edo zubia
gustora ibil liteke
kanpotar bizitaria
Euskal Herriko lurretan
bakarra da, alegia
mendia eta hondartza
batzen dituen hiria.

6

San Sebastian egunez
danborren doinu azkarra
Otsailan kaldereroak
kaleetan barra barra
ihauterietan ez da
egoten giro kaxkarra
uda hasieran jazza
dago probatu beharra
Aste Nagusi osteko
arraunlarien indarra
Zinemaldiko "glamourra"
udazkeneko izarra
Santo Tomasen eginda
azken esfortzu suharra
urte guztia festetan
bizi da donostiarra.

7

Igeldo eta Altzaren
kasua da ezaguna
aske izateko asmoz
hasitako lan jarduna
Donostiarik gabeko
independentzi kuttuna
desiratzen dute baina…
hau panorama iluna!!
Udaletik jaso arren
ezetzaren erantzuna
bidezko eskari honek
merezi du oihartzuna
hori da pertsona gisa
onartu behar duguna
herri izan nahi dutenen
bi auzoren nortasuna.

8

Hemen amaitu nahi nuke
honenbestez , hausnarketa
nahizta beste gauza asko
neuzkan buruan gordeta
kritikaren bat komeni
izaten denez tarteka
azaleratu nahi nuen
hiri honekiko kezka
Donostiari kantuan
malenkoniaz beteta
ordutan ari ninteke
baina agortu zait beta
agian beste batean
jarraituko dut hizketa
zortzi bertso luze hauek
motz gelditu zaizkit eta.

ALTZAKO ONENARI SARIA (EXEQUO):
**“WELCOME TO…”**
XABIER MUJIKA CASARES
Doinua: Dama gazte xarmant bat

1
“Welcome to San Sebastián
seinale bat berri,
orain mende erdia
ziguten ezarri.
Errepide ertzean
oso apaingarri,
baina badaezpada
Mirakrutzen jarri
trialai larai laralai
Mirakrutzen jarri

2
Etxe anabasa da
gaur Altzan nagusi,
Errepidez josita
zein dagon itsusi!
Herri izateari
ez genion eutsi,
eta horrek ez digu
egin kalte gutxi,
trialai larai laralai
egin kalte gutxi

3
Auditz-Akular eta
horrelako planak,
herria ondatzeko
asmatuak danak.
”Zuen onerako da
herritar laztanak”,
diote Kontxatikan
han bizi diranak,
trialai larai laralai
han bizi diranak

4
Beraz herritarrentzat
herritarrik gabe,
kalte egiñagatik
oso lasai daude.
Hori zergatikan den
oharturik gaude,
Altzan ez geralako geure buru jabe,
trialai larai laralai
geure buru jabe.

5
Ez ote dugu hobe
behingoz etetea
Donostiakin lotzen
gaituen katea.
Hobe dugu bai
urrats
hori ematea,
inoren auzo baino
herri izatea,
trialai larai laralai
herri izatea

6
Entzun nahi nukeena
garbi esan, hara:
”Buenavistan seinale
dotore bat bada,
irakurriko duzu
pasatzen bazara,
-Welcome, ongi etorri,
bienvenu Altzara-“
trialai larai laralai
bienvenu Altzara

**"KOLDO"**
SANTI ZAPIRAIN ELIZALDE
Doinua: Habanera

1
Bi izar izan ditugu
ze poz ta ze atsegina
bat oso ederra baina
bestea ez da berdina
horregatik beti dugu
gure bihotzean mina
biziari ikusita
bere aurpegi gordina.
Baina maitasuna Koldo
da guk dugun urre fina
zu maitatzeko laztana
beti izango dugu grina
Asier bezala zara
amodioak egina
egunsentian zu zara
guk dugun zeru urdina

2
Beti maiteko zaitugu
zu zara gure semea
arimaren ihintzarekin
egin genuen lorea
Udaberriko larrosa
lurrin goxoez betea
guretzat lore ederrena
zu zara seme maitea.
Ez da sekula etengo
maitasunaren katea
zu zara arnasa eta
ni izango naiz haizea
pozik laztanduko dizut
jolasean irribarrea
ni izango naiz batera
aita eta adiskidea

3
Lo zaudenean semetxo
pozik jartzen naiz begira
nik eta amatxo batera
egin genuen kabira
abesten dizut kanta bat
goxo goxo belarrira
zu hegan iritsi arte
ametsetan ilargira.
Gero bidaltzen dizkizut
mila laztan aurpegira
zuri hainbeste maitea
gustatzen zaizun tokira
zoratzen nau zure xarmak
maite dut zure distira
uso txurien musuak
zu bezalakoak dira

4
Naturak jo dit enbido
ta ni berari ordago
maitasunari zetorren
bezala egin diot trago
ekaitzak indar asko du
baina bihotzak gehiago
arima ezin du ito
bestela dena akabo.
Neretzat seme maitea
zaude ezer baino  lehenago
musuka igoko zaitut
izarrak baino gorago
Zoriona emateko
bihotz bihotzez prest nago
goazen Koldo amestera
bizia gure zain dago

5

Opari denen artean
ederrena da bizia
zure ondoan maitea
gainera hain berezia
negu beltzaren erdian
zu zara Udaberria
egunsentiko ihintzaaren
tanta bat zoragarria.
Goizean zara bertsoa
ta gauean olerkia
goizetikan gueraino
nik maite dudan argia
bizia ametsa da ta
ametsa maiz da egia
egia da Zoriona
gure Zorion erdia.